



Whiskey koloreko gauak

Paddy Rekalde

Lehenengo narrazioa gustura irakurri dut. Baina bigarren narrazioa irakurtzen hasi arte, nobela baten aurrean nengoela uste nuen. Nire ustez, argitaratzaileak sinopsi baten bidez beti ohartarazi behar du irakurlea zein literatur genero daukan esku artean: nobela bat, ipuin batzuk, kontakizun labur bat...

Lehen narrazio honetan Paddy Rekalderen euskara gustatu egin zait. Arina da, baina errazkerian erori gabe. Sorberritzen duen giroa lohi samarra izaten da; Euskal Herriko taberna-giroa ere ondo erretratatzeko du (gure herriko taberna eta pubetako giroa alegia). Euskaraz arnasa hartzen laguntzen dizu, Paddy Rekalderen hizkuntza-eredua ongi sustraituta dagoelako. Bukowsky ekartzen du gogora, hain urrun iristen ez bada ere. Baina, bueno, “gure” Bukowsky da. Lehen narrazioa naturaz gaindiko artifizio baten bidez konpontzen du. Penagarria da, nire ustez. Esaterako, naturaz gaindiko Salba hura mahukatik atera beharrean, kaiko pretilean topatzen duen pertsonaia –barrukoak botatzera joateko pubetik atera zenean, zigarro batzuk eskatu zizkion clochard hura– Salba zela edo izan zitekeela aditzera eman izan baligu, narrazioak izugarri hobetuko zukeen, zeren, azken finean, horri esker fikziozko errealismoa bete-betean lortuko baitzukeen, hau da, sinesgarritasunaren barruan sartzen den gertakari bat jarriko zigukeen aurrean (munduan jende asko desagertzen da nahita...). Dena den, lerro hauek hobeto ulertuko dituzue narrazioa irakurri duzuenok...

Gero, bigarren narrazioan, antzeko zerbait gertatzen da berriro, hau da, narrazioaren irtenbidea-edo beste behin iristen zaigu naturaz gaindikoa den edo behintzat nahiko azalgaitza den beste gertakari baten eskutik. Niri mota horretako irtenbideek ez naute asebetetzen... Nire ustez, errealitate-itxurako fikzioa bilatu behar da beti, hori da benetan funtzionatzen duena eta egilearen irudimena eta obraren balioa argi eta garbi erakusten dituenak.

Lehen narrazioa Miramonen (Donostia) irakurri nuen, hara askotan joaten bainaiz irakurtzera, furgonetarekin. Bigarrena gauetz irakurri nuen, Maria Cristina Hotelaren aurrean dagoen moto-aparkalekuan, Urumea ibaiaren ondoan, furgonetan. Beste bat bulegoan. Eta gainerakoak Sagues auzoan (Donostia), furgoneta barruan osterantzean. Euri-egunak ziren, hotzak, zakarrak... nik hain gogoko ditudanak...

Pentsatzen dut denok daramagula barruan halako “gau-txori” bat. Eta ni ez naiz salbuespena. Aspalditik ez naiz ibiltzen pub eta taberna giroko lekuetan, baina dena den, nik neuk ere ezagutu ditut neure “Whiskey koloreko gauak”. Alde horretatik, Paddy ulertu egiten dut.

Paddy Rekalderen euskara primeran ibiliko litzateke nobela beltzaren generoan. Gidoi egoki bat bilatzea besterik ez luke egin behar; ez litzateke beharrezkoa gidoi oso sofistikatua bilatzea; eta gainerakoa, berez etorriko zen, nik uste. Areago, horri esker, itzal internazionalagoa (internazionalista ez, hori bera bada nahiko) lortzetik gertuago egongo zela esango nuke.

Zenbait elkarrizketa (zenbaitzuk bakarrik) pittin bat astunak egin zaizkit momentu batean edo bestean, ez baitziren oso mamitsuak, azalezkoak baizik.

Egileak jarrera ideologiko bat hartzen du, -ren alde edo -ren aurka jartzen da, dudamudan ibili gabe (nahiz eta, zorionez, egile planfletarioa ez izan).

Esan dudan bezala, Bukowsky ekartzen du gogora, hain altu hegan egitera iristen ez bada ere. Baina Bukowskyren manerak, paisaiak, ohiturak eta ikuspegiak partekatzen ditu.

“Whiskey koloreko gauak” izeneko kontakizuna omen da biribilena, batez ere hizkuntza aldetik. Dena den, nik sinesgarritasunik eza ikusten diet liburu honetako kontakizunik gehienei. Gustura irakurtzen ditut hala ere, Paddy Rekalderen euskara oinarri onekoa delako, eta horrek euskaldunoi beti ekartzen digu halako freskotasun bat, balio duen erreferentzia bat... Ni, gainera, badakizue lanbidez itzultzailea naizela, ordu asko pasatzen ditut esaldiak idazten eta berridazten eta berriro osatzen... azkenean ahituta bukatzen duzu, eta horregatik erreferente onak bilatu behar ditut “pilak” birkargatzeko. Hori ere bilatzen dut nik euskarazko liburuetan, nahiz eta helburu hori berez literarioa ez izan, noski.

Istorioko batzuk, oro har, pobre samarrak iruditu zaizkit irudimenaren ikuspuntutik... Ia liburu osoa aski absurdua da, baina literarioki absurdua.

Niretzat liburuko ipuinik onena “Top of Macroom: infernurako alkoholaren gau-bidaia” da. Hizkuntza deskribatzaileak pisua hartzen du, oparo bilakatzen da, eta aurrean jartzen digun istorioak indarra dauka. Hori bai, liburu honengatik ez dut uste ez Emakundek ez mugimendu feministak, oro har, urrezko danborra emango diotenik... Paddy Rekalde bere garaiko semea da. Hori berez ez da akatsa, denok gara geure garaikoak. Baina...

Une batez Paddy Rekalde imajinatu dut beste denbora batean eta beste espazio batean. Esaterako, Estatu Batuetan jaiotako Paddy Rekalde bat. Eta irudikatu dut Harley batera igota, tatuaje eta piercing asko eginak, bere motor-zale koadrilarekin, bere desilusioa eta bere desengainua erakusten eta bizitzen, bere inkonformismoaz eta liskar on bat bilakatzeko bere gogoaz gozatzen.